



Prensa oharra

Janaria alferrik ez galtzeko ekintzei esker

EROSKI-K 16.000 TONA JANARI HONDAKIN SAIHESTU DITU URTEKO LEHEN SEIHILEKOAN

- Urteko lehen seihilekoan, 1.400 tona janari eman ditu dohaintzan (hau da, lau milioi otordu liratekeenak) ehun bat gizarte erakunderen bidez.
- EROSKI k bat egin du *elikagaiak alferrik galtzearen aurkako astearekin*, AECOC Kontsumo Handiko Enpresen Elkarteak sustatua
- Europako zenbait proiektutan dabil ekonomia zirkularrean oinarritzen direnak, aprobetxatzeko modukoa dagoen janaririk gal ez dadin

Elorrio, 2021eko irailare 29a.- [EROSKI](#)k 16.000 tona janari hondakin saihestu ditu 2021eko lehen seihilekoan, janaria alferrik ez galtzeko ekintzei esker. Horretaz gainera, EROSKI Taldeak bat egin du AECOCek (Kontsumo Handiko sektorearen Espainiako elkarte nagusiak) elikagaiak alferrik galtzearen aurka antolatzen duen astearekin. Urriaren 3an amaituko da, eta egun horretan (igandearekin) izango da elikagaiak galtzearen eta hondatzearen gainean kontzientziatzeko Nazioarteko Eguna. Nazio Batuen Batzar Nagusiak dekretatu du irailaren 29rako, asteazkenarekin.

Urteko lehen sei hilabeteetan, EROSKI k *Zero Hondakin* programaren bidez 1.400 tona janari eman ditu dohaintzan egoera zaurgarria direnen alde, hau da, 4 milioi otordu liratekeenak; horretarako, 100 gizarte erakunderekin baino gehiagorekin jardun da. Programa horrek bermatzen du bere dendetan ez dutela botatzen jateko ona dagoen elikagairik eta denda bakoitzetik hurbilena dauden gizarte erakundeei ematen zaiela. Programa gauzatzeko, EROSKI lankidetzan aritzen da Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioarekin (1966tik), Caritasekin, Gurutze Gorriarekin, Reto a la Esperanza elkartearekin, baita beste hainbat gizarte erakunderekin ere. Guztiek ere behartsuei eta bazterketa arriskuan direnei laguntzen dihardutenak.

"Oraindik onak dauden janari tonak zuzenean alferrik ez galtzeko gizarte erakundeei dohaintzak egin ez ezik, ekonomia zirkularreko ekintzak gauzatzen ditu, giza kontsumorako jada balio ez dutenei bigarren bizitza bat emateko. Zero Hondakinen helburua jasota dago Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloan hartuak ditugun 10 konpromisoekin; bestalde, G1Hetako 12.a betetzen laguntzen

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

du, zeinaren 12.3 xedea den erdira gutxitzea 2030erako alferrik galdutako eta botatako janaria. EROSKI, janari katearen parte denez, konprometituta dago zuzenean hura erdiesteko", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Alferrik galtzen den janaria

Konpromisoaren parte, EROSKIk apustu egin du dela itxuragatik dela tamainagatik fruta eta barazki "itsusiak" merkaturatzearen alde. Lehen seihilekoan, 300 bat tona fruta eta berdura "itsusi" merkaturatu ditu.

Iraungitze datatik edo kontsumitzeko gomendatzen den datatik hurbil diren produktuetan deskontuak egiten ere ari da, eta gizakiok kontsumitzeko ez dauden janariak dohaintzan ematen animalientzako babeslekuetara eta zooetara. Dendan janaririk alferrik ez galtzeko bi ekintza nagusi horiei esker, 13.600 tona galtzea eragotzi da.

Berrikuntza hondakinen kudeaketa zirkularrean

EROSKIren asmoa ez da bakarrik janaria alferrik galtzen ez utzi eta elkartasun ekintza bat egitea, ekonomia zirkularra indartzea ere bada eta. Hala, EROSKIk urtearen lehen partean bigarren bizitza bat eman dio 2.500 tona elikagairi, nola eta animaliak bazkatzeko irinarazita eta olioak eta pentsuak eginda.

EROSKIk Europako berrikuntza proiektuetan parte hartzen du elikagai hondakinei erabilera berriak bilatzeko eta ekonomia zirkularrerantz egiteko. Alor horretako proiektua da [Life Citruspack](#); helburua da zitrikoak zuritzean sobratzen diren azalen zuntz naturalak ekonomia zirkularrerako aprobetxatzea eta berriz baloratzeko estrategiak bilatzea dela zukuetarako botilak eginez eta dela kosmetiko konpostagarri eta biobasatueterako ontziak eginez. Beste proiektu bat *Nutraceutical Omnium* da, Ausolanekin, Gaiker IK4rekin, Basque Culinary Centerrekin eta ISEArekin lantzen diharduena. Hazitek 2020 programak finantzatua dago, eta helburua da gehigarri dietetikoak ekoiztea alferrik galtzen diren elikagaietan dauden substantzia naturalak aprobetxatuta.

Bestalde, EROSKIk orain berriki *Robin Food* berrikuntza proiektuan parte hartu du. Proiektu horretan batera landu nahi dituzte gizarte bazterketan dauden pertsonak eta janari soberakinak; gaur egun *Foodrusekin* lankidetzan dihardute, Europako Horizon 2020 programaren barnean, zeinak elikadura sistema zirkular, kolaboratibo eta berritzaile bat garatuko baitu xedea izanik janari hondakinak gutxitzea nekazaritzako elikagaien katean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)